



Gonbidatzen zaitugu parte hartzera

**150gr. ARTE ESZENIKOAK AZOKAN** ekimenaren beste edizio batean,  
**2018ko abenduaren 26tik 28ra bitartean**, Vitoria-Gasteizen

Aurkezteko epea: **Abuztuaren 12tik irailaren 15era**

Mesedez, deialdiaren oinarriak irakurri eta helarazi zure proposamena  
eta eskaera helbide honetara:

[festival150gr@gmail.com](mailto:festival150gr@gmail.com)

[deskargatu.150gr.eskaera](http://deskargatu.150gr.eskaera)

PEZ LIMBOK, FACTORIA DE FUEGOS eta EL MONO HABITADOrekin batera, programatu eta koordinatuko du gaur egungo hainbat proposamen eszeniko erakustea **azoka bateko** erabiltzen ez diren saltokietan.

Artista eszenikoen bila ari gara: antzezleak, dantzariak, performers, zuzendariak, antzerki konpainiak, argiteria eta soinu diseinatzaileak, eszenografoak, ... Hau da, programa honen barruan jatorrizko formatu txikiko piezak aurkezteko interesa dutenak.

## BALDINTZA OROKORRAK

1. Parte-hartzaileek hurrengo dokumentazioa bidali behar dute [festival150gr@gmail.com](mailto:festival150gr@gmail.com) helbidera

- Izen-emate fitxa
- JPG argazkia kalitatea onean
- Bideoaren lotura
- Faktura egingo duen entitatea eta fakturatzeko modua

2. Piezak ezin dira 25 minutu baino luzeagoak izan. Ikuskizunak sortzez formatu laburrekoak izan behar dira, ez da onartuko formatek luzeagoak izan zitezkeenak.

3. Tokia txikia denez, antzezlanak dagokien lekuei egokitu behar dira

4. Behar teknikoak minimoak izango dira. Antolatzaileek lekuaren oinarriko egokitzapena egingo dute, baita muntaketarako laguntza teknikoa eman ere. Hala ere, parte hartzaileak arduratuko dira euren eszenografa, tresneria eta behar tekniko bereziak eramateaz.

5. Antolatzaileek ez dute inolaz ere teknikari bat jarriko saioetarako.

6. Piezek edozein estilo edota formatu izan dezakete, beti ere ARTE ESZENIKOEN terminoaren baitakoak badira. Proiektuak baloratuko dira sormen, berezitasun eta irisgarritasunaren arabera.

7. Piezak aukeratzeko bideo ikustea oso garrantzitsua da guretzat, beraz **bidal ezazue bideo esteka bat** nahiz eta entsegu batekoa izan.

8. Antolakuntzak aurreikusten du konpainia edo parte-hartzaile bakoitzari eguneko **400 euro (zergak barne)** ordaintzea. Baina Jaialdiaren gauzatzea dirulaguntza jasotzearen menpe egongo da. Ondorioz, aipaturiko dirulaguntza jasoz gero, eta kantitateak horrela ahalbidetuz gero, parte-hartzaileei katxe handiagoa ordainduko zaie.

9. Piezek begiztan aurkezteko aukera izan beharko dute, hau da, saio batzuk jarraian egin ahal izan beharko dira egun berean; kopurua iraupenaren eta bideragarritasun tekniko eta artistikoaren pentzuan egongo da, hala ere, eguneko 4 saio egin beharko dira, gutxienez.

10. Ez dira kontuan hartuko umeentzako piezak.

11. Aukeratuek fakturatzeko ahalmena izan behar dute eta faktura azaroaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dute.

12. Antolakuntza salbuetsita dago edozein arduraren aurrean, aurkeztutako obren jabe intelektualari zein legalari dagokionez, eta talde, konpainia edo artistak beraiek izan behar dute edozein kudeaketa entitatek kudeatutako egile- eta ekoizle-eskubideak betetzeko ardura.

## PARTE-HARTZAILEENTZAKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

- 1, Aforoa mugatua da, ikusleak saltokiaren barruan izango dira.
- 2, Jaialdia egiten den azokan hotz egiten du; hala ere, hotzari aurre egiteko saiatzen gara saltokiak epeltzen.
3. Jaialdia hiru egunetan izango da, abenduaren 26tik 28era bitartean.

PROPOSATUTAKO DATEN ARTEN BATEN BAT NAHIGO BADUZU, ADIERAZI IZENA EMATEKO FITXAN!

4.**Irailaren bigarren astean** harremanetan jarriko gara aukeratutako artistekin. Adi egon e-mailarekin, mesedez!

Jaialdiaren informazio gehiago jaso edo espazioen ideia bat egin nahi baduzu, 3.edizioaren bideo bat ikusi ahal duzu esteka honen bidez:

[video Festival 150gr.](#)

edo bisitatu

[www.pezlimbo.com](http://www.pezlimbo.com)